

«Sansebastianak herriko festarik ederrenak dira»

Mikel Ibartzabal, azpeitiarra. Aurtengoarekin, guztira 31 urte egingo ditu sansebastianetako danborradan ateratzen hasi zela; horietatik 25 urte, bera gaur omenduko duen Harkaitza elkartearekin.

...

Harkaitza elkarteak gaur omen-
duko du Mikel Ibartzabal. Izan
ere, azken 25 urteotan Harkai-
tza elkarteak kideekin atera
baita danborradan, sansebas-
tianetan. Urteotako bizipenak
gogoratu dizkio EGUNKARIARI
Mikel Ibartzabalek, Azpeitiko
danborradaren ingurukoak, eta
baita San Sebastian jaiei gaine-
koak ere.

■ **Zenbat urte dira danbo-
rradan ateratzen hasi
zinela?**

31 bat urte izango dira.

■ **Eta Harkaitza elkartea-
rekin ere hasieratik atera
izan zara danborradan?**

Harkaitzan hasieratik nago.
Aurtengoarekin, 25 urtez atera-
ko gara danborradan gure
elkartetik.

■ **Eta, aurretik, non atera
zinen?**


Aurreko urteetan, Mendizalee-
tan; eta, mutikoa nintzenean,
Peña Taurina El Andaluzetik
ere atera nintzen Azpeitiko
danborradan.

■ **Zuen taldean neskak
irteten al dira?**

Danborra jotzen ez dira atera-
tzen. Eskaera seniorik ere ez
digute egin, orain arte, behin-
tzat, kantinera eta banderadun
moduan soilik atera dira. Beti
sozioak, sozioen semeak edo
lagunak atera izan gara danbo-
rradan.

Elkartean bertan izango da
jendea horren aurka azalduko
dena, baina niri, behintzat, ez

Mikel Ibartzabal ... Danborradako kidea



EMAKUMEAK

GIROA

ELKARTEA

«Nire aldetik ez
lukete oztoporik
izango danborradan
ateratzeko»

«Sansebastianetako
giroa entseguetatik
hasten da
nabarmentzen»

«Danborrada eta
gero elkartera
etortzen gara; giro
polita izaten dugu»

dit axola emakumeak danbo-
rradan ateratzeak. Nire emaz-
teak atera nahiko balu, nire
aldetik ez luke oztoporik izan-
go.

■ **Aparteko entsegurik
egiten al duzue?**

Pasa den astean egin ziren Ber-
dura plazako bi entseguetatik
aparte ez. Aurrenekoan ez zen
jende askorik izan, baina biga-
rrengoan jende gehiago etorri
zen.

Guk bi entsegu horietatik

aparte, ez dugu besterik egiten.
Dagoeneko pieza guztiak ikasi-
ta ditugu.

■ **Uniformea orain dela
urte batzuk aldatu zenu-
ten. Zergatik?**

Bai, duela zortzi urte aldatu
genuen. Hasieran, dantzari
moduan ateratzen ginen, baina
hotza izaten genuen danborra-
dan zehar, abarka eta guzti ate-
ratzen ginen eta.

Elkartean hiru lagun aukera-
tu genituen trajeen arazoa kon-
pontzeko, eta beraien esku utzi
genuen. Orduan, soldadu traje
horiek egitea erabaki zen. Tra-
jeok epelagoak dira, eta barru-
tik edozer gauza jantz dezake-
gu.

■ **Kantinerak eta bandera-
dunak aurkitzeko arazorik
izaten al duzue?**

Guk orain arte ez dugu arazorik
izan horrelako arazorik. Aurren
ere elkartekideen alabak atera-
ko dira. Askotan bat baino
gehiago aurkeztzen zaizkigu
kantinera atera nahi dutela esa-
nez; gainera, gure kantineren
arropekin gustura ateratzen
dira.

■ **Noiz hasten da zuentzat
San Sebastian bezpera?**

Elkartean duela hamar bat
egun hasi zen, junta berria sartu
zenean. Horiek dira bezperako
afaria prestatzeko arduradun-
ak.

Dena den, Sansebastianeta-
ko giroa entseguetatik hasten
da nabarmentzen.

■ **Afariak ere ez dira nola-
nahikoak izaten.**

Hemen ez dago horrelako ohi-
turarik, afariak egiteko eta.
Agian azpizuna edo gulak afal-
duko ditugu, baina angulak eta
horrelako konturik ez dugu iza-
ten.

■ **Sansebastianetako dan-
borrada urtarrean izan-
da, hotz handia egin ohi
du. Hotzari aurre egiteko
zer egiten duzue?**

Bai, bakoitzak ahal duena egi-
ten du. Taldearekin beste bi
lagun ateratzen dira, eta horiek
izaten dituzte botila pattarrak.
Baina danbor joleetan bertan
ere izaten dira botila pattar txi-
kiak eramaten dituztenak.

■ **Eta danborrada bukatu-
takoan, zer?**

Gero, elkartera etortzen gara.

PIKUA Pub

Arrabala, 2 • AZPEITIA



SONE-MARKAR

solariuma • estetika
masajea • depilazioa • laserra

Enparan, 15 - 1. • Tel.: 943 81 38 98 • 20730 Azpeitia



ITURRALDE

Iturgintza, S.L. ITURGINTZA, GAS
ETA BERO ZERBITZUA
BAINU ETA BAINU-OSAGARRIAK

Erakusketa: Eliz kalea 12, behe • Tel./Faxa: 943 81 12 12

Biltegia: Landeta Hiribidea, 19 • Tel.: 943 15 16 66 • 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

CROMISERVICE
SISTEMA

URBISTONDO
MARGOAK

"KOLOREAREN
ESPARRUAN EZ
DUGU MUGARIK"

Salbe Auzunea 35 behe • 20730 AZPEITIA • Tfnoa.: 943 81 57 81

Azpeitia-Urrestila errepidea
Tel./ Faxe: 943 15 00 85

Santiago kalea, 11
Tel.: 943 81 63 96
20730 AZPEITIA

Azpeitia
Kimu bat
UROLAKO JARDINERITZA

Ekain

ALBAITARI ZERBITZUAK

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel./Fax: 943 16 15 40